2014-IX-12
Número **438.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.eus

# astekaria

# EDITORIALA

## Lehiaz lehia

**Hauteskunde sindikalen lehia uneoro-uneoro ematen bada ere, ezin ukatu berebiziko garrantzia hartzen duela datozen hilabeteotan emango den epealdi trinkoa, hor metatzen baitira delegatuak berritzeko kopururik handienak. Ezaugarri bereziak izan dituen prozesu bakoitzari, honako honek bereak ere gehitzen dizkio. Batetik, joko zelaia lokazten saiatu direnen interesak daude, lohian artean errazago arrantzatuko dutelakoan; beste aldetik patronalen buruek inoiz baino argiago agertu dute sindikatu espainolen aldeko hautua, hauek omen dira lan harremanak taxuz bideratzeko eragile zintzoenak eta; azkenik, gobernuek ere bere ekarpena egiten dute gure erakundearen izen ona zikindu nahian. Lehia arrunta beharko lukeenari gehigarri hauek erantsi behar zaizkio; beraz, osagarri hauekin jokatu behar.**

**Zenbakien lehia arruntaz gain, guretzat ere nolabaiteko azterketa dakarkigu prozesu bakoitzak, non organizazioaren sendotasuna eta osasuna neurtu behar dugun, konpromiso kolektiboaren mailaren egoera, gure mezuak eta praktikekiko langileen atxikimendua, gure antolakuntza ereduarekin enpresetara iristeko dugun gaitasuna eta abar luze bat. Eta horrekin batera, aurreko prozesuek erakutsi diguten moduan, hondar ale bana eta bakoitzak berebiziko garrantzia du hondar-piloa egiten laguntzeko. Beraz, ez dago asko esplikatu beharrik norbanako eta kolektiboaren konpromisotik bakarrik bidera daitekeela hauteskunde sindikalen lehia, ahalik eta gure nagusigoari eutsi nahi badiogu. Militante guztion konpromisoak lagunduko digu indar neurketa honetan gure proiektua indartuago atera dadin. Hori da gure erronkarik presazkoena garai hauetan.**

**Gure autonomia ekonomikoa, soziala eta politikoarekin bukatu nahi dutenek zorrotz begiratuko dituzte gure emaitzak, eta ahal badute abaguneaz baliatuko dira gure erakundea jomugan jartzeko. Ez diegu holako une gozorik emango. Euskal Herriko langileek lehiaz lehia ELArekiko duten atxikimendu eta engaiamendua berriro erakutsiko dira.**

Lankidetu!















**Irailaren 1etik 2015eko maiatzaren 31 bitartean 24.835 delegatu berritu beharko dira, egun Hego Euskal Herrian dagoen kopuru osoaren erdia baina gehiago**

# MARTXAN DA HAUTESKUNDE SINDIKALEN EPEALDI-TRINKOA

Egungo ordezkaritza mantendu eta ahal den neurrian handitu. Hori da irailaren lehenean hasi zen hauteskunde sindikalen epealdi-trinkoari begira gure sindikatuak jarri duen helburua. Hala azpimarratzen du alor honetako arduradun Txema Laisekak. "Kontutan hartu behar dugu oso ordezkaritza handitik abiatzen dugula prozesua, %35,02 Hego Euskal Herrian. Ordezkaritza hori mantendu eta, posible bada handitu nahi dugu, batez ere Nafarroan. Gaur gaurkoz %39,61eko ordezkaritza daukagu Euskal Autonomia Erkidegoan, eta %21,33 Nafarroan".

Iraileko lehen egunetan apenas egin da bozketarik; epealdi-trinkoaren lehen aste hauetan egingo diren boza gehienak enpresa txiki eta ertainei dagokie. Urritik aurrera hasiko da batez ere enpresa-komiteen txanda. Hala ere, prozesuaren oso hastapenetan egon arren baikor egoteko motiboak badituguIa uste du Laisekak. "Emaitzak ez dira izaten kasualitatearen ondorio. Gure jendea lan bikaina egiten ari da enpresatan, eta ziur naiz egindako lan horrek bere uzta emango duela". (Oharra: datorren astetik aurrera *Astekaria*-n astez aste egiten diren bozketa garrantzitsuenen berri emango dugu).

### ENPRESA GUZTIETARA HELDU NAHI DUGU

Agerikoa da hauteskundeetan emaitza onak lortzearen garrantzia. Baina Txema Laisekak hortik harantzago joan behar dela uste du. "Noski emaitzak arduratzen gaituztela! Baina, emaitza onak izateaz gain, ELAtik helburu handi bat dugu: enpresa guztietara heltzea. Eta berdin zaigu enpresa handia, ertaina edo txikia izatea. Ezinbestekoa da enpresa guztietan ELA presente egongo den gune sindikal bat sortzea. Helburu hori funtsezkoa da langile-jendea antolatzeko borrokan".

Izan ere, Espainiar Gobernuak onartu zuen azken lan eta negoziazio kolektiboaren erreformaren ostean errotik aldatu dira orain arteko joko-arauak. "Enpresa handietan ezinbestekoa da atal-sindikal indartsuak izatea, agerikoa da hori, baina azken erreformaren ostean are eta garrantzitsuagoa da enpresa txiki eta ertainek ordezkaritza sindikala izatea. Partido Popularraren lan erreformak argi uzten du enpresa dela lehenesten den esparrua; beraz, enpresa-hitzarmenak du lehentasuna gainontzeko hitzarmenekiko. Horrek are eta garrantzitsuagoa egiten du enpresa guztietara heltzeko dugun erronka: enpresa bat, delegatu bat, hitzarmen bat".

*El 1 de septiembre comenzó el periodo concentrado de elecciones sindicales. Hasta el 31 de mayo se renovarán 24.853 delegados/as, algo más del 50% del total.*

## Las trabajadoras de Residencias de Gipuzkoa celebran el triunfo logrado en la negociación del último convenio y ultiman la plataforma reivindicativa del próximo

# "HEMOS GANADO"






El 24 de julio la residencia Berra, de Donostia, firmaba tras una larga y durísima lucha sindical su convenio colectivo. Fue, junto a Villa Sacramento, la última residencia y/o centro de día de Gipuzkoa en blindar sus condiciones ante la reforma laboral. Atrás quedaban casi dos años de ejemplar lucha sindical protagonizada por las cerca de 4.200 personas que trabajan en el sector, sobre todo mujeres, repartidas en cerca de un centenar de centros. Una lucha liderada por ELA prácticamente en solitario, que se inició con muchas incógnitas, y que a medida que fue pasando el tiempo y llegaron los resultados fue adquiriendo dimensiones insospechadas.

El viernes 12 de septiembre, decenas de delegadas y delegados de Residencias y Centros de Día de Gipuzkoa volvieron a encontrarse tras el verano para celebrar una asamblea general con los responsables del sindicato. A la misma asistió, también, el secretario general, Adolfo Muñoz, *Txiki*, que no quiso perder la oportunidad de felicitar a las/os presentes por la lucha mantenida y animarlas/os a continuar en el camino trazado. En un ambiente de alegría y triunfo colectivo, Iñigo Zubeldia, responsable del sector sociosanitario de Gipuzkoa, explica los porqués de esta asamblea y las derivadas de la misma.

**-¿Cuál era el objetivo de la asamblea?**

-En primer lugar, se trataba de cumplir el pacto no escrito que hicimos delegadas/os del sector y responsables del sindicato cuando hace dos años decidimos iniciar un conflicto sostenido en el tiempo para conseguir un convenio colectivo digno y que nos blindara de la reforma laboral. Iniciamos ese camino sabiendo que el reto era enorme, ya que la patronal era especialmente retrógrada y no esperábamos mucho de otros sindicatos: lo que consiguiéramos lo íbamos a conseguir nosotros y nosotras. Así las cosas el pacto fue que una vez terminara la lucha, independientemente del resultado, nos íbamos a juntar, a sacar conclusiones y a celebrarlo. Porque el mero hecho de luchar merece la pena.

La gran noticia es que hemos ganado por 90-0; el sector en su totalidad está blindado. El 24 de julio, cuando se firmó el acuerdo de Berra, la última residencia que quedaba sin convenio, nos dio a todos y todas un subidón que todavía perdura.

**-La lucha de las residencias de Gipuzkoa se ha convertido por méritos propios en un referente sindical.**

-Ese, precisamente, era otro de los objetivos de la asamblea: dar valor público a lo que hemos conseguido. Era un día de celebración; un día para la autoestima, cargar pilas cara al futuro y darnos cuenta de la importancia de nuestra lucha colectiva.

**-La asamblea sirvió, también, para aprobar la tabla reivindicativa que defenderéis en la próxima negociación colectiva del sector, en 2015.**

-Así es. Hemos decidido continuar con el mismo modelo de negociación colectiva que tan buenos resultados nos ha dado en la negociación 2013-2014, pero no entendiéndolo como algo cerrado, sino adaptándolo a las circunstancias que se vayan dando en el mercado laboral.

Estamos metidos y metidas de lleno en la preparación de la negociación colectiva; de hecho, hemos aprobado en la asamblea la plataforma reivindicativa, y próximamente empezaremos con las reuniones comarca a comarca y centro a centro para explicarla, socializarla y enriquecerla. Se trata de que las trabajadoras la hagan suya y estén dispuestas a dar otro paso adelante en sus derechos laborales.

**-¿Nos puedes adelantar los contenidos?**

-Una de las prioridades es luchar contra la precariedad en un sector con una eventualidad enorme. Es evidente que se trata de una lucha a medio plazo, pero en este convenio queremos darle un bocado importante. En este sentido, vamos a luchar para eliminar las ETTs; no tienen razón de ser en el sector.

También vamos a darle centralidad al tema de las Mutuas. Por otra parte, queremos mejorar la calidad de las condiciones laborales de las trabajadoras a través de los calendarios, que permitan mejoras en la conciliación. Asimismo, vamos a intentar consolidar derechos para la formación. También vamos a tocar de manera decidida el tema de los riesgos psicosociales en un sector en el que estamos detectando mucho acoso laboral; vamos a intentar establecer procedimientos de control y verificación.

Somos ambiciosos y ambiciosas. Queremos mejoras en salarios, mejoras en empleo, pero no sólo eso: queremos dignificar el sector y acercarlo a la realidad de las trabajadoras y trabajadores del mismo, la mayoría mujeres.

**-¿Cuál es la raya roja que os marcáis en esta negociación?**

-La única garantía de aplicación del convenio es que sea refrendado empresa por empresa. Esa es la principal raya roja que no vamos a permitir que se traspase. La empresa que no quiera refrendar el convenio tendrá conflicto asegurado con ELA.

**-Con la perspectiva que da el tiempo, ¿Cuál es el secreto de la victoria sindical en Residencias de Gipuzkoa?**

-No hay secretos. El éxito alcanzado tiene unas bases muy claras: una mayoría representativa importante de ELA, una gran afiliación y capacidad organizativa. Con estos ingredientes las garantías de éxito son muy altas. La patronal del sector respeta a ELA por su alta afiliación y por su capacidad de ponerla y organizarla en clave de conflicto.

**-La caja de Resistencia ha jugado, también, un papel importante.**

-Sin duda. El caso más claro es el de Berra. Sin una alta afiliación –ejercida sin complejos–, la decisión y el coraje de nuestra gente, y la caja no hubiéramos podido aguantar el empecinamiento de Adegi en que no hubiera acuerdo.

Durante el tiempo que duró el conflicto se declararon nulos los 18 despidos, un juzgado condenó a la empresa al pago de elevadas indemnizaciones por vulneración del derecho a la huelga y a la libertad sindical... Sar Quavitae, gestora de Berra y Villa Sacramento, ha perdido muchísimo dinero por seguir las directrices de Adegi; han sido sus chivos expiatorios. Los intereses de Adegi no son los intereses del sector. Esperemos que ellos, también, hayan sacado sus propias conclusiones de este conflicto cara a la negociación próxima.

**-Tampoco podemos obviar el papel jugado por la Diputación Foral de Gipuzkoa...**

-Efectivamente. El Departamento de Política Social de la Diputación de Gipuzkoa ha estado a la altura de las circunstancias: no sólo no se ha escondido, sino que ha asumido su responsabilidad y se ha mojado. Ha entendido que las Administraciones tienen responsabilidad en los procesos de negociación de sus subcontratas –algo que ELA siempre ha defendido– y ha actuado en consecuencia.

**-Me imagino que una victoria así habrá servido para consolidar aún más la mayoría de ELA en el sector.**

-Así es. Hemos crecido un 20% en afiliación a lo largo de estos dos años de conflicto y nuestra tasa de penetración es enorme en todas las empresas del sector. Esperamos, evidentemente, que esta victoria sindical tenga reflejo, también, en los resultados de las elecciones porque las trabajadoras del sector saben perfectamente el papel que han jugado los distintos sindicatos en la consecución de este convenio.

**-La lucha de las residencias de Gipuzkoa se ha convertido en un referente sindical. ¿Cuál crees que es la principal enseñanza de este conflicto?**

-Que se puede combatir la reforma laboral en todos los sitios; en todos, sin excepción. Lo que hay que tener es fe, organización, solidaridad y confianza en la lucha colectiva. A ELA, a las trabajadoras de las residencias no nos pueden vender que la reforma laboral no se puede combatir. Lo hemos hecho. Hemos tumbado la reforma laboral.

A ELA, a las trabajadoras de las residencias no nos pueden vender que la lucha y la pelea son instrumentos del pasado, un modelo caduco, y que lo moderno, lo útil, lo progresista o democrático es el diálogo social. Las trabajadoras de las residencias saben que cada vez que el gobierno le de un regalo a la patronal en forma de reforma al día siguiente habrá que salir a la calle a cargarse el boletín oficial.

**-Las residencias conforman un sector muy feminizado, y no es casual. Sin embargo, las *chicas* le han salido guerreras a la patronal...**

-Quiero aprovechar este Astekaria para hacer un homenaje a las mujeres de las residencias de Gipuzkoa y de todos los sectores feminizados. A mí, personalmente, me han demostrado que son más duras y más implicadas que los hombres, y que cuando se organizan son imbatibles.

No se trata de entrar en una guerra de sexos; todos somos trabajadores y trabajadoras, pero auguro que en el futuro próximo vamos a ver a muchas mujeres luchando y ganando; vamos a ver la dignificación de muchos sectores precarizados precisamente porque eran básicamente femeninos. Van a darle la vuelta a la situación. El futuro del sindicalismo es mujer.

# LABURREAN / BREVES

## • Arkema Quimica multinazionalak Alonsotegin duen lantokia ixteko asmoa iragarri du

Irailaren 9an Arkema Quimika enpresak Alonsotegin duen lantokia ixteko asmoa duela iragarri zion enpresa-batzordeari. ELAk gogor salatu nahi du multinazional britainiar honen asmoa, eta itxierak izango lituzkeen ondorio larriez ohartarazi. Zuzenean 60 langilek dihardute bertan lanean; gainera, beste hainbeste dira zeharka enpresa honen inguruan lan egiten dutenak.

ELAk Arkema Quimikan duen atal sindikalak azpimarratzen duenez, enpresa guztiz bideragarria da, eta urtez urte irabaziak ematen ditu. "Zuzendaritzak itxiera azaltzeko eman duen azalpena lehorra eta onartezina da. Soilik lantegi hau merkatuan ez dela errentagarria esan digute, Ameriketako Estatu Batuetako eta Txinako lehiaren ondorioz. Zuzendaritzari bost axola zaio gure etorkizuna, soilik euren irabazi kontua-handitzea nahi dute".

ELAk aurki mobilizazio egutegi bat iragarriko du –enpresa-batzordea osatzen duten bost delegatuak gure sindikatuarenak dira–. "Helburua enpleguak mantentzea da. Alonsotegiko lantokia guztiz bideragarria da, urtez urte sortzen dituen irabaziei erreparatu besterik ez dago. Erakunde publikoei dei egin nahi diegu multinazional honen erabakiaren aurka eta enpleguaren alde borroka dezaten. Herri-erakundeen inplikazioa ezinbestekoa izango da arazoari aurre egiteko. Ez dezagun ahaztu itxierak Euskal Herriko industria-sare osoari eragingo diola, ez soilik Alonsotegiko lantokiari".

## • Mobilizazioak Osakidetzan

ELA, SATSE, LAB, SME-FFHH, CCOO, UGT eta ESK sindikatuek hainbat mobilizazio iragarri dituzte datozen asteetarako Osakidetzan, kalitatezko osasun publiko baten alde egiten ari diren kanpainaren baitan. Gauzak honela irailaren 18an itxialdiak egingo dira ospitale nagusietan; urriaren 4rako, berriz, manifestazioak daude deituta Gasteizen, Bilbon eta Donostian. Gainera, Osakidetzako zuzendaritzak egungo politikekin jarraituz gero mobilizazioak areagotzeko asmoa iragarri dute sindikatuek, lanuzteak eta greba egunak barne.

## • LOMCEren aurkako mobilizazioak, kurtso hasiera dela-eta

ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuak eta Sortzen,Ikasle Abertzaleak, Udako Euskal Unibertsitatea eta Hik Hasi eragileek deituta hainbat mobilizazio egin ziren irailaren 8an LOMCE legearen aurka, ikastetxe askotan ikasturte berria hastearekin bat.

ELAko irakaskuntza arduradun Xabi Irastorzak nabarmentzen duenez, "Eusko Jaurlaritzak ez du oraindik LOMCEa gure ikastetxeetan sar ez dadin bermatzeko eta erreformari aurre egiteko neurri argirik hartu. Are gehiago, LOMCEa hainbat ataletan egokitu eta abian jartzeko neurriak bidali ditu ikastetxeetara. Nafarroako Gobernua, berriz, aitzindari izaten ari da hezkuntza erreforma basati hau nafar erara aplikatzerako orduan, jada marko legala egokitu eta curriculum dekretuak ere argitaratu dituelarik".




## • Bilboko 5 eremu liberalizatzeko erabakiaren aurka

Irailaren 2an Bilbo "turismo handiko eremu" izendatzen duen ebazpena argitaratu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko buletin ofizialak. Gauzak honela merkataritza ordutegiak erabat liberalizatuta izango dituen Hego Euskal Herriko lehen hiria Bilbo izango da. Neurria datorren urteko udan jarriko da martxan, eta hiriko hiru eremu zehatzetan izango du eragina: Abando-Indautxu-Garellano, Deustu eta Zazpikaleak. Izendapen horri jarraituz, saltokiek euren ordutegiak nahierara antolatzeko aukera izango dute 2015. urteko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra.

ELAk erabaki hau salatu nahi du: Eusko Jaurlaritza merkataritza ordutegiak liberalizatzeko plan estatalaren arrastoan sartu da, gai honetan duen eskumen esklusiboa baztertuta. ELAren ustez ez dago motiborik merkataritza saltokiek egun duten ordutegia zabaltzeko, kontsumitzaileek ez baitute halakorik eskatzen. Esperientziak argi uzten du gisa honetako neurriak ez direla ohiz kanpoko diru-sarrera iturri bat, datorren turista profilak beste era bateko aisialdia hautatzen baitu. Gainera, Madrilgo ordutegien liberalizazioak frogatzen duen bezala, ez du enplegurik sortzen.

## • Felicitación al pueblo de Catalunya

ELA quiere felicitar a Catalunya por la multitudinaria respuesta dada a los diferentes actos convocados para el 11 de septiembre con motivo de la Diada. El trabajo movilizador y pedagógico realizado barrio a barrio y pueblo a pueblo durante los últimos años ha constituido y constituye el principal motor de este proceso de emancipación. A ello hay que sumar la honestidad política de quienes han abandonado definitivamente cualquier hipótesis de bilateralidad con un estado, el español, que ha cerrado todas las puertas a la más mínima reivindicación democrática y nacional, tanto para Catalunya como para Euskal Herria. Por todo ello, recalcar la felicitación de ELA al pueblo de Catalunya.

## • ELAk 2012ko EHUren abenduko aparteko ordainsariaren inguruko demanda irabazi du

Euskal Herriko Unibertsitateak 2012ko abenduko aparteko ordainsaria kendu zien bere langileei, 20/2012 Errege Lege Dekretuaren derrigortasunaren aitzakipean. Erabaki horren aurrean ELAk salaketa jarri zuen; orain, Administrazio arloko 6. zenbakidun Bilboko Epaitegiak partzialki onartu du ELAren eskaera. Gauzak honela aparteko ordainsariaren zati proportzionala jasotzeko eskubidea aitortu dio EHUko funtzionario bati. Epai honen aurrean ELAk hauxe exijitzen dio Euskal Herriko Unibertsitateari: 2012ko abenduko aparteko ordainsaria bere osotasunean itzul diezaiola bere langile guztiei inolako salbuespenik gabe.

## • ELA presenta la dimisión de los dos delegados de Ateltrans y Transtelco

A finales de agosto dos delegados de las empresas navarras Ateltrans y Transtelco –pertenecientes al mismo grupo– firmaron un convenio de empresa que empeoraba las condiciones laborales y en cuyo proceso de negociación no se respetaron los principios de honradez y transparencia mínimos exigibles.

Ante la gravedad de esta actuación contraria a los principios del sindicato ELA les solicitó la inmediata dimisión, a la que accedieron. De este modo, las dimisiones fueron presentadas el 3 de septiembre en el Departamento de Trabajo de Navarra, por lo que desde ese momento dejaron de ser delegados en sus empresas.

ELA se reafirma en su estrategia en la defensa de los salarios y el empleo como parte imprescindible para combatir la crisis económica, así como en la necesidad de organizar a los trabajadores en los centros de trabajo para sindicalizar las empresas e impedir, como en este caso, que los empresarios puedan aprovechar las posibilidades que les otorga la reforma laboral.




## • Kontziliaziorako laguntzak berreskuratzearen aldeko mobilizazioa

ELAk protesta ekintza antolatu zuen irailaren 5ean Eusko Jaurlaritzak Bilbon duen egoitzaren aurrean. Izan ere, gure sindikatuaren ustez onartezina da lan- eta famili-bizitza kontziliaziorako bideraturiko laguntzen aurrekontuetan eman diren murrizketak. Eusko Jaurlaritzako Politika Sozialen sailburuordeak 2014eko abuztuaren 22an ateratako erresoluzioaren arabera, 2014an lan- eta famili-bizitza kontziliatzeko bideraturiko laguntzen aurrekontuaren kreditua agortu da. Gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agertzen ez bada ere, Eusko Jaurlaritzak ia ez du aipatzen artean 2014ko lehen hiruhilekoan bideraturiko laguntzen %37a kobratu gabe dagoela.

## • ELAk Enplegu Publikoaren Lege Egitasmoa erretiratzea exijitzen dio Eusko Jaurlaritzari

Irailaren 11n Funtzio Publioaren Mahai Orokorra bildu zen Gasteizen. Bertan, Eusko Jaurlaritzak Enplegu Publikoaren Lege Egitasmoaren inguruan prestatu duen zirriborroa aurkeztu zuen, bere kabuz eta sindikatuen partaidetzarik gabe egindako dokumentua.

ELA-Gizalan federazioko idazkari nagusi Igor Eizagirrek lege egitasmo honen irakurketa ezkorra egiten du. "Lehen analisia txarra da, zirriborroan berariaz egiten zaiolako uko euskal funtzio publikoaren berezko esparru bat izateari. Estatuko oinarrizko arauekiko menpekotasun erabatekoa edonon eta edonoiz ikus daiteke. Ez da apusturik egiten gure herrialdeko errealitateari eta beharrizanei erantzuteko".

"Gainera, –nabarmentzen du Eizagirrek–, zirriborroak negoziazio kolektiboa erasotzen du. Igorri ziguten testuak lan-baldintzak alde bakarretik erabakitzeko ahalmena gordetzen dio administrazioari. Horrek praktikan dakarrena enplegatu publikoen negoziazio kolektiborako eskubidea ukatzea da. Noski, ELAk ezin du onartu negoziazio kolektiborako benetako eskubidea jasotzen eta bermatzen ez duen eredurik".

Lehen irakurketa horren ostean, –hurrengo egunetan egongo da zirriborroa luze eta zabal aztertzeko beta–, ELAk eskaera argia egin nahi dio Eusko Jaurlaritzari: Enplegu Publikoaren Lege Egitasmoa erretira dezala.



## Luis Fernández, secretario general-adjunto de la Federación Industria eta Eraikuntza

# "TENEMOS QUE TRABAJAR SINDICALMENTE PARA RESPONDER A ATAQUES COMO LOS DE ARCELOR"



El 27 de agosto Arcelor Mittal –multinacional dedicada a la siderurgia– planteó el cierre temporal de la planta que el grupo tiene en Zumarraga. Tras una semana muy intensa, el 1 de septiembre se firmó el acuerdo entre por ELA, CCOO y UGT con la dirección de la empresa. Luis Fernández analiza lo sucedido en esta empresa del metal.

**-¿Qué valoración haces de lo sucedido estas últimas semanas en la planta que Arcelor tiene en Zumarraga?**

-Lo primero es denunciar el chantaje que la dirección del Grupo Arcelor Mittal viene desarrollando contra las y los trabajadores de la planta de Zumarraga. Recordar que hace menos de dos años, con firma de CCOO y UGT, se ejecutó una bajada salarial del 12% y un aumento de jornada. El último episodio se vivió a finales de agosto: el jueves 27 la dirección de la multinacional comunicó su decisión de cierre temporal de la planta a partir del 1 de octubre. Un anuncio que, lógicamente, produjo un estado de shock tanto en Zumarraga como en toda la comarca. Al fin y al cabo, un cierre temporal en una acería de estas características suele ser en la mayoría de los casos la antesala del cierre definitivo.

No podemos olvidar que esta acería es una de las principales empresas de la comarca, donde actualmente trabajan 375 personas. En este sentido, denunciamos públicamente a todos aquellos que contribuyeron con sus declaraciones a que la estrategia del shock que pretendía la dirección de Arcelor calara tanto entre las y los trabajadores como entre la ciudadanía. Hablo, por ejemplo, de la consejera de industria del Gobierno Vasco, Arantza Tapia; del alcalde de Zumarraga, Mikel Serrano –PSE–; de los responsables de CCOO en la empresa –sindicato mayoritario y que históricamente siempre le ha hecho el juego a dirección–; de los medios de comunicación que han ayudado en esta estrategia...

En la reunión celebrada el lunes 1 de septiembre la dirección de Arcelor Mittal planteó la posibilidad de llegar a un acuerdo que evitaría el cierre temporal de la fábrica. Para ello hacía un planteamiento de aumento de la carga de trabajo si acordábamos la inclusión de un 5º turno de trabajo. De hablar de posible cierre, se pasó a posible incremento de carga de trabajo y empleo.

**-Al final ELA aprobó el acuerdo.¿Por qué?**

-Es un acuerdo que evita el cierre temporal de la planta sin pérdida de derechos, aunque hay que denunciar el escenario del chantaje y generación de miedo en el que se ha desenvuelto. El problema para ELA no radica en los compromisos adquiridos por los trabajadores y trabajadoras en el acuerdo. El mayor problema es la manipulación interna y externa del mismo. Internamente, Arcelor ha pretendido disciplinar a la plantilla. Externamente, algunos dirigentes políticos y patronales quieren utilizarlo como ejemplo de que *apretándonos el cinturón* las empresas no cierran. Ambas cosas son inciertas.

ELA va a continuar en Arcelor-Zumarraga con su labor de denuncia y presión ante la empresa. Ahora la pelota está exclusivamente en su tejado. Por otro lado, los dirigentes políticos saben perfectamente que ninguna empresa ha cerrado sus instalaciones por culpa de los trabajadores/as y sus condiciones laborales. Es una lectura interesada de clase, tanto de patronal como de gobernantes.

**-¿Qué valoración haces de la actitud de LAB en este conflicto.**

-Es necesario denunciar la mezquina actitud de LAB. Han sido partícipes del acuerdo, haciendo seguidismo de lo planteado por ELA. En la reunión participaron en el acuerdo y su redacción, con presencia incluso de responsables federales. La reunión acabó con acuerdo y apretón de manos entre la empresa y LAB. A partir de ahí es lícito firmar o no firmar, pero lo que no es de recibo es criticar a los firmantes de un acuerdo del que LAB ha sido parte.

**-Has denunciado la actitud tanto del Grupo Arcelor Mittal como de quienes ejercieron como voceros de la multinacional...**

-La actitud de la dirección es la que suelen utilizar las grandes multinacionales para intentar disciplinar a las y los trabajadores. Es evidente que no se pueden descartar nuevos ataques en un futuro no muy lejano. Y nuestro reto es precisamente ser capaces de responder a este tipo de chantajes. En Arcelor y en todas las empresas de Euskal Herria.

Sabemos cuál es el camino: el trabajo sindical. Más y mejor trabajo sindical: afiliación, organización y lucha. Una vez superado este shock tenemos que seguir trabajando para evitar en un futuro nuevas amenazas contra las y los trabajadores y, llegado el caso, poder responder a los ataques.

*"Ezinbestekoa da antolakuntza eta lan sindikala langileon kontrako xantaiei eta mehatxuei erantzuteko. Multinazional handiek izua eta beldurra zabaltzen dute, langileak eta herritarrak shock egoeran utzi asmoz. Eta, zorritzarrez, gogor salatu behar dugu gurean arduradun politikoek estrategia horren konplize direla, Zumarragako Arcelorren gertatu den bezala"*

**www.ela-sindikatua.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

**www.ela-sindikatua.eus**

**Franqueo concertado nº 08/207**